

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Egia deserosoa

Teoría katastrofikoek harrera ona izaten dute. Badauka gizakiak iragarpen apokaliptikoetan sinesteko joera.

Erdi Aroan, beldurtuta pasa zituzten X. mendeko azken urteak, 1000.ean munduaren amaiera zetorrelakoan. Hamar mende geroago, berriz piztu da alarma gorria, hasita omen dago planetaren hondamendiaren atzera kontua. Poloetako izotza urtuko da, itsasoak gora egingo du beldurgarri, berotan kiskalita biziko gara laster.

Klima aldaketa modan dago, eta libre da edozer esatea, kezka baino gehiago barregura ematen duten sasi-albisteak tartean.

Mendea bukatu baino lehen itsasoaren maila bost metro igoko dela entzun nion irratiko esatari bati. Lasai asko bota zuen iragarpena. Horrenbeste gehiegikeria esaten dira, azkenean ez dugu ezer sinestuko.

Komunikabideetan ez ezik, kalean ere bolo-bolo dabil hondamendiaren teoria. Iazko negu epela, esaterako, klima aldaketaren erakusgarri da askorentzat. Ez naiz ni kontu hauetan aditua, baina ez dago asko sakondu beharrik jakiteko epe luzetant neurtzen dela klima, eta ez urtetik urtera, ezta hamarkadetan ere. Azkeneko udak eta neguak konparatzen jardutea tontakeria hutsa da, beraz. Horrenbeste aldiz entzuten dugun “lehengoak bai zirela negu gogorak” horrek ez du azterketa sinpleena ere gainditzen.

Planetaren izaeraren parte da klima aldaketa, bai orain, baita duela hamar mila urte ere. Saharar baso tropikalak desagertu eta basamortua



nagusitu zen baldintza klimatikoek hala behartuta. Europa iparraldean, berriz, Erdi Aroan izan zuten beroaldi bati esker ardoa egitera heldu ziren Norvegian. Aldaketok ez zituen gizakiak eragin, eta arazo handirik gabe barneratu zituen planetak.

Gaur egun ordea, katastrofe kutsua hartu du, eta gizakia omen da errudun.

Ez dago zalantzarik ingurugiroari egindako kaltea bueltan etorriko zaigula, baina horren haritik munduaren azkena aurreikustea askotxo dela iruditzen zait. Gizakia hain da egozentrikoa, uste du dena dabilela bere bueltan, lurrean eta zeruan.

Gutziz bat egiten dut hondamendi klimatikoa zalantzan ipintzen duten ikertzaileekin. Egon badaude, oso gutxi entzuten bazaie ere. Beraiena barbaro apal bat besterik ez da Al Goreren ahots aplikatuaren aurrean.

Kiotoko protokoloa sinatu ez zuena da orain ingurumenaren defendatzaile sutsuena, Bakearen Nobel saria eman diote Irak hegoaldeko herriak uraniozko lehergailuz bonbardatu zituenari.

Petrolioaren munduko mapa ez da Amerikako Estatu Batuetako agintarien gustuko. Iran, Venezuela, Saudi Arabia, Nigeria... leku “arriskutsuak” dira, horretan ez dago alderik errepublikarren eta demokraten artean. Aldaketa klimatikoaren mozorroa primeran etorri zaie ordezkio energiaren beharraz ohartarazteko. “Egia deserosoa” deitu dio Al Gorek bere diskurtsoari, eta munduak sinestu egin dio. Badauka meritua. ■



‘Egia deserosoa’ deitu dio
Al Gorek bere diskurtsoari,
eta munduak sinestu egin
dio. Badauka meritua



TXANDAN
Igor Estankona



Edo beste Amerika. Amerika bihozbera bezain erreala

baita, zoritxarrez, aurka gauzkan Amerika. Eta beltzen iraultza bat-batean iritsi zen. Egia esan, sano arinagotik zetozen puztuz-puztuz ekaitzaren lainoak zerumugatik. Eguneroko umilazioen gogorak horixe dauka: errepresioa arinkeriaz aplikatzen da maiz, baina gainera egiten du gero. 30. hamarkadan Langston Hughesek jadanik arkatza hartua zuen profeta batek bezala:

“Zer gertatzen zaio atzeratu den amets bati?/ Sikatu egiten al da/ mahaspasaren moduan eguzkitan?/ Edo, areago, zornea dario mintzarrari bezala/ gero galapan ihes egite-

Benetako Amerika (IV)

ko?/ Usteldutako okelari legez kiratsa ote dario?/ Edo geruza

gingo zaio eta pikortatu/ alimbarrean utzitako sagar-gozokia nola?/ Behar bada karga astun baten gisan eskegita dago./ Edo leher egiten ote du?”

Eta ordurako Nate Shawek eskopeta hartua zuen, behin baino ez, baina hartua zuen, eta tiro egin ere bai, etxetik kaleratu behar zuten maizter pobre baten defentsan. Bote-retsuen klaseak kondentzen baitzuen, haren aburuz, zuri pobrea beltz pobrearekin batera. Eta gaineratu zuen: “Zera ikasi dut, hitzek baino askoz altuago hitz egiten dutela ekintzek”. ■